

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARAMAIOKO UDALA

#### 2019 ekitaldiko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainaldia

Herritar guztiei jakinarazten zaie 2019 ekitaldiko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren erreziboak ordaintzeko epea, lekuak eta medioak ondokoak direla:

Ordaintzeko borondatezko epealdia: 2019ko azaroaren 18tik 2019ko urtarrilaren 17ra, biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak, zerga ordaindu behar duenak esandako kontu eta banketxe edo kutxan kargatuko dira 2019ko abenduaren 2an.

Helbideratu gabeko ordainagiriak, zergadunari, posta bidez igorriko zaizkio bere helbide fiskalera. Ordaintzeko, finantza entitate kolaboratzaileetako bulegoetara (Kutxabank eta Euskadiko Kutxa) jo dezake ordainagiria aurkeztuz.

Azaroaren 30a iritsi eta zergadunak ez badu ordainagiria etxean jaso, Udal bulegoetan eskatu beharko du.

Borondatezko epearen barruan zor horiek ordaintzen ez badira, prozedura exekutiboaren bitartez eskatuko dira eta premiamenduzko errekargua, berandutza interesak eta, bidezko balitz, sor daitezkeen kostuak gehituko dira.

Aramaion, 2019ko azaroaren 6an

*Alkatea*

*LIERNI ALTUNA UGARTE*